

EUSKEREAREN OSASUNA BAKION

Baten batek euskerearen osasuna Bakion ona dala uste izango dau. Ez dago besterik, baina, eguneroko errealitatetik asagoen dagoanik.

Orokorrean, euskerea inoizkorik babestuen eta baita birreskuratze bide ukoezinean be dagoala uste izaten dogun bitartean, euskerearen alarma-argi gorri guztiak isetuta dagoz. Gaur eguneko egoereari berealako urten-bidea ez bajako egiten, euskerearen eriotza soziala urte gitxi barru jazo leiteke.

Euskerea Bakion kinka larrian dagoana ukoezina da. Onetaz ez oartutea itsukeria baino ez da. Osterantzean, ara:

euskaldun elebakarrik ez dago, au da, erderarik ez dakianik ez dago.

biztanlegoaren %73k, gitxi gorabehera, euskerea eta erderean egin daike. Oneentzat euskeraz egiteko aukerak gitxiagotuten jakez beste %27 eta udartiarren eraginez. Ia ezinezkoa egiten joko inori Bakion euskera utsez bizitea, udan batez be.

sendiaren bidezko izkuntza igorpena eten egin da ikaragarriro.

elduen artean ia inork ez dau alfabetatze ikastaroetan esku artuten.

kaleko euskera erabilpen maila ia utsaren urrengo da, zaar batzuen artean izan ezik.

gazteengan, geienok eurok euskaldunak izanda, ez da euskeraz egiteko gogorik asmetan. Are geiago, euskerearenganako zeozelango nekea igarten jake, gorrotoa ez esateko. Ondorioz, aal daben guztietan ez dabe euskerarik egiten.

Eritxiak eritxi, euskerearen ganean lortu edo azaldu ten deuskuezan emoitzak edo zertzeladak ulertuteko era ezbardinak egon arren be, azken baten, emoitzak emoitz izanda, danontzako berberak dira. Bakotzak odorioa atara bei.

Aspalditik, izkuntza ordezkapen bide gogorrean sartuta gagoz. Erdereak euskereari eremua apurka-apurka janez, jaun ta jaube biurtu da. Egoera au susterretik aldatuten ez badogu, Aitorren Izkuntza Zaarra ilotz lotuko da.

Arazoaren inguruan bi dira giltzarritzat jo geinkezan itaunak:

- 1.- Ez dabe erakundeek euskerea birreskuratuteko beste bitartekorik eta gaitasunik ala?

- 2.- Zelan egin dakikeo aurre-aitatutako ordezkapen arazo orreri, gero, euskerearen birreskurapena Totu daikegun?

Leenengo itaunari gagokozala, esan bear, euskerearen eriotza soziala ez dala inoiz Bakion ain ur egon. Beste aldetik, ez dogu egundo onenbeste bitarteko eta tresna euki bere normalizazinoa lortu aal daigun. Euskerearen birreskurapena lortutea aalezkoa da izan. Daukaguzan tresnak zelan darabilguzan, berorretan datza arrakastea ala porrota.

Aaleginak aalegin. erri erakundeek euskerearen aldeko aalegina egiten ez badabe be, ezin izango dogu euskerearen nagusitasuna lortu. Baina, orrelango ekintzetan erriari jagokon eskuartzea ukatuz eta eurak erakundeek monopolizatuz ez dago bape zer eginik.

Leenengo ta bein, erakundeek euskerearen alde jokatuz, jarrera zintzoa arte bearko leukee, kontzientzia eta borondate politikoa erakutsiz. Urrengoan, azterketa soziolinguistiko egoki eta benetako baten ondorioz, euskerearen normalkuntzarako *PLANGINTZA OROKORRA* sortutea izango litzake biderik onena. Au, erriko indar biziak alkarlanean, jakina. Erriari eskuartzea ukatutea burugogorkeria eta uts aundia litzake eta. Itsukeria, jauntxukeria, azken baten. Euskerearen birreskurapena ez da idazgoetako ekintzez bakarrik lortuko, erabiliaz baino, eta erabilerea erriari jagoko eta berak erriak ziurtatu bear dau.

Ezin leiteke diru publikoaren erabilera alderdikoia egin. Alderdikeriak eta politikeriak albo baten baztartuz eta eztabaida tekniko bultzatuz, aurrera egitea jaretsiko dogu. Izkuntza Plangintza arrakastatsuren azken ezau-garria bitartekoen erabilera egokian litzake eta. Diru publiko euskerearen Plangintza sakon besteko serioa egiteko erabili bear dogu. Orren ardurea eta kontrola Udalaren esku egongo litzakez, jakina!

Artean, egin daigun gure eskueran dagoana, arean da, aal dogun ginoan, *EUSKERAZ BIZI*. Aalegindu gaitetzan, beintzat! !

Gure arbasoengandik artu dogun ondarerik beinena euskerea da eta. Esku artean daukagun erantzizkizuna itzela da. Ez daiegun utsik egin!

INIAKI MARTIARTU